Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea.

Interventor – Kontuhartzailea

D. Zigor Egia Lejardi jauna.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamaseiko uztailaren hamalauan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udal Batzarra bildu zen bilera berezian, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipatutako jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a catorce de julio de dos mil dieciséis y siendo las dieciocho horas treinta minutos, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Ez da etorri Garate Larrañaga andrea.

No asiste la Sra. Garate Larrañaga.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

<u>1.- 2015eko Kontu Orokorra onartzea.</u>

<u>1. Aprobación de la Cuenta General del año 2015.</u>

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“2015. urteko Kontu Orokorra jendearen aurrean egon da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 63.3 artikuluan ezarritakoa bete aldera, eta inork ez dio ez erreklamaziorik ezta idatzizko iradokizunik ere egin.

“La Cuenta General del año 2015 ha sido expuesta al público en cumplimiento de lo establecido en el art. 63.3 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y no se han presentado reclamaciones ni observaciones por escrito a la misma.

Elkar iritziak eman ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak, Udalbatzari, 2015eko Kontu Orokorra ontzat hartzea proposatzen dio, Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia

Tras un cambio de impresiones, la Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, con 4 votos a favor de (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabakaga y Jon Iraola) y 5

Arrizabalaga eta Jon Iraola jaun/andreen aldeko botoekin (4) eta Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Jaime López de Guereñu eta Mª Jesús Aguirre jaun/andreen abstentzioekin (5).”

abstenciones de (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Jaime López de Guereñu y Mª Jesús Aguirre) se propone al Pleno Municipal la aprobación de la Cuenta General del año 2015.”

Ibañez andreak hartu du hitza eta esan du bera ez dela sartuko Kontu Orokorraren balorazioa egiten irudi erreala eta objektiboa delako eta Kontu-hartzaileak egindako lana zuzena delako; baina uste du beharrezkoa dela 2015eko likidazioaren edukiaren inguruko balorazio bat egitea, beraiek ez datozelako bat likidazio horrekin, norabide falta islatzen duelako, udal estrategia garbi baten gabezia itzela eta ilusioa piztuko luketen inbertsioen existentziarik eza.

Intervine la señora Ibañez quien comienza diciendo que no va a entrar a valorar la Cuenta General porque es una imagen real y objetiva, y el trabajo del Interventor es correcto, pero que sí cree que es necesario hacer una valoración sobre el contenido de la liquidación del 2015 porque no la comparten ya que refleja falta de rumbo, ausencia absoluta de una estrategia municipal clara, e inexistencia de inversiones ilusionantes.

Udalaren finantza-egoerari buruz, dio Ibañez andreak, ez dagoela dudarik: Udalak finantza-egoera inbidiagarria duela, azken urteotan murrizten joan zen zor bizi batekin, 2015ean % 2,64an geratu dena. Horrela, 2014an, zorra 5.900.000 eurokoa zen; 2015ean 4.100.000 eurokoa, eta 2016an 3.500.000ekoa; hau da: 201tik 205era 1.700.000 euroan murriztu da zorra, eta 2015etik 2016a 685.000 euroan. Baina, dio, kontua hauxe dela: inbertsiorik ez

En cuanto a la situación financiera del Ayuntamiento, prosigue, es indudable que el Ayuntamiento goza de una situación financiera envidiable, con una deuda viva que ha ido reduciendo a lo largo de los últimos años y que queda en 2015 en el 2,64%, y así, en el año 2014 la deuda era de 5.900.000 euros, en el 2015 de 4.100.000 euros, y en el 2016 de 3.500.000; esto es, que del 2014 al 2015 se ha reducido en 1.700.000 y del 2015 al 2016 685.000 euros; pero el tema es que

egiten murrizten dela zorra baina, inbertitzen ez denean, erakundearen finantza-egoera hobetzen bada ere, hiritarren bizi-kalitateak behera egiten duela.

Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina aztertzen bada, gaineratzen du Ibañez andreak, zenbatekok duten pisuarekin jausi egiten dira: 6.391.000 euro 2014an eta 2015ean 8.500.000 euro; aurrezki garbiei dagokienez, 2014an bost milioi izatetik 2015ean sei eta erdi izatera pasatu dira.

Likidazioaren datuei dagokienean, Ibañez andreak baieztatzen du datu horiei eustea zaila dela, eta bitxiena hauxe dela: inbertsioaren lepotik ari dela aurrezten, gastua gora doalako, eta, zehatzago esanda ondasun eta zerbitzuen bigarren kapitulua, beraien ustez, udal kudeaketan gastuari ahalik eta gehien eutsi beharko litzaiokeenean.

Geroxeago dio jaitsiera bat nabaritzen dela ohiko transferentzietan, 2016an milioi erdiko gorakada bat badago ere, eta bere Taldeak hainbat aldiz planteatu duela: Udalak ematen dituen diru-laguntzak gizarteari itzultzeko helburuz berraztertu beharko liratekeela, eta gaur egun, oraindik analisi hori egin gabe dagoela.

Benetako inbertsioen kopurua negar egitekoa da, dio Ibañez andreak, eta hala, 2014 urtean zehar % 77 burutu zen,

se reduce no invirtiendo y que cuando no se invierte mejora la situación financiera de la institución pero a consta de no mejorar la calidad de vida de los ciudadanos.

Si se analiza el remanente de tesorería para gastos generales, añade, las cifras se caen del peso que tienen: en 2014, 6.391.000 euros, y en 2015, 8.500.000 euros, y en cuanto a los ahorros netos, se ha pasado de cinco millones en el 2014, a seis y medio en el 2015.

Prosigue afirmando que en lo que concierne a los datos de la liquidación, estos datos son difíciles de sostener, y que lo curioso es que se está ahorrando a costa de inversión, porque el gasto sube, y en concreto el capítulo segundo de bienes y servicios, cuando entienden que la contención debería de ser máxima en la gestión municipal.

Dice más adelante que se aprecia una baja en las transferencias corrientes, si bien en el 2016 se produce un repunte de medio millón, y que su Grupo en varias ocasiones ha planteado que las subvenciones municipales deberían de ser revisadas en clave de reversión a la sociedad, análisis que hoy día está pendiente.

La cifra de las inversiones reales es de llorar, prosigue, y así, si a lo largo del 2014 se ejecutó el 77%, en 2015 el 49,68%; por

2015ean % 49,68. Hori horrela izatea, kudeaketa-arazoengatik, iraginkortasun ezagatik edo, hauteskundeei begira, nahitan atzeratzeagatik izan daiteke.

Diru-sarrerei buruz, Ibañez andreak dio Bigarren Kapituluan aitortutako diru-sarrerak aurrekontuan agertzen direnak baino handiagoak direla, eta gauza bat dela zuhurtzia eta, beste kontu bat, zuhurtzia horrek ematen dituen emaitzak. Horrela, 2015ean, 1.257.000 eurotik 2.004.000 eurora bitarteko igoera bat izan zen, hau da: % 160ko exekuzioa; eta horrek esan nahi du bildu edo batuko den dirua baino askoz gutxiago jartzen dela aurrekontuan, geldikinak sortzeko intentzio politikoa dagoelako.

Zazpigarren kapituluari dagokionez Ibañez andreak dio diru-laguntza kontzeptuan sartu ez diren zenbatekoak ez direla galdu pentsatu nahi dutela, eta diru-zenbateko horiek urtean zehar jasoko direla, gaur arte ez direlako 900.000 euro jaso; eta aurrekontuaren exekuzioa % 66koa da, 2014an % 90ekoa izan zenean, eta denek badakite ere 2015ean justifikatu ezin izan diren obrak egon direla —eta horrexegatik eskatu zaio luzapena Eusko Jaurlaritzari— eta kontua da, dagoeneko, uztailaren 14a dela.

Ez du balio aho beteka aritzea bi milioi euro negoziatu direla esaten, gero, milioi

lo que esto puede obedecer a problemas de gestión, inoperancia, o retraso intencionado en clave electoral.

Sobre los ingresos dice que en el Capítulo Segundo los ingresos reconocidos son superiores a las cantidades presupuestadas, y que una cosa es prudencia y otra los resultados que arrojan la misma prudencia, y que así en el año 2015 se produjo un incremento de 1.257.000 euros a 2.004.000 euros, esto es, una ejecución del 160%, lo que quiere decir que se presupuesta mucho menos de lo que se va a recaudar, porque hay intencionalidad política de generar remanentes.

En cuanto al capítulo séptimo, continúa, quieren entender que las cantidades no ingresadas en concepto de subvenciones no se han perdido, y que dichas cantidades se recibirán a lo largo del año, pues a día de hoy no se han recibido 900.000 euros, siendo la ejecución presupuestaria de un 66%, cuando en el 2014 fue de 90%, y aunque todos saben que ha habido obras que no se han podido justificar en el 2015, por lo que se ha solicitado una prórroga al Gobierno Vasco; lo cierto es que se está a 14 de julio.

No vale llenarse la boca, añade, diciendo que se han negociado dos millones euros si luego no hay capacidad para ejecutarlos.

horiek exekutatzeko kapazitaterik ez badago.

Zoritxarrez, eta Ibañez andreak dio bera horren beldur dela, gai hauek ez dute erantzunik jasoko, eta ulertzen du, ez delako erraza prebisio-falta edo gaitasunik eza nork bere gain hartzea, baina bizitzan beharrezkoak dira jokabide ausartak, eta gehiago oraindik Udal batean.

Segitu du esaten beraiek bizitzeko eta lan egiteko Eibar bat nahi dutela, inbertsioak behar dituena, eta Udalak baduela gaitasuna, baliabideak eta lanerako prest dagoen jendea; entzutea merezi duten ideiak daudela eta Plan Estrategiko bat ere dagoela, bide horretan argia ematen duena.

Geroxeago dio gaur hemen aurkeztu den dokumentu teknikoak bere Taldearen konfiantza duela; datuak objektiboak direla, eta egia da entzuten dena. behar dena baino zor handiagoa ez dela egin behar, etxean bezala jokatu behar dela, baina ez dela gauza bera oporrak ordaintzeko zorretan sartzea edo lanerako behar den autoa erosteko zorretan sartzea.

Gaineratzen du Udalak prozedurak hobetu behar dituela aurreikusitako obrak programatzeko orduan, obra horien exekuzio-portzentajea gehitzeko.

Lamentablemente se teme, continúa diciendo, que estas cuestiones no van a tener respuesta, y lo entiende porque no es fácil asumir la falta de previsión, o la incompetencia, pero en la vida son necesarias actitudes valientes, y más en un Ayuntamiento.

Prosigue diciendo que desean un Eibar para vivir y trabajar que requiere de inversiones, y para lo que el Ayuntamiento tiene capacidad, recursos, gentes dispuestas a trabajar, que hay ideas que merecen ser escuchadas y que hay un Plan Estratégico que aporta luz en ese camino.

Dice más adelante que el documento técnico que hoy se presenta merece la confianza de su Grupo, que los datos son objetivos y que es cierto que se oye que hay que endeudarse lo justo, como en casa, pero que no es lo mismo endeudarse para pagarse las vacaciones que endeudarse para comprar un coche que se necesita para el trabajo.

Añade que están convencidos que el Ayuntamiento tiene que mejorar procedimientos para la programación de las obras previstas para incrementar el porcentaje de ejecución de las mismas.

Bi hilabete dira —jarraitzen du esaten Ibañez andreak— Gobernu Taldea egunkarietan atera zela, urtebeteko agintaldiagatik bere burua loriatzen, baina oraindik ez dietela gobernu-programarik aurkeztu, eta inprobisazioa, gaur, dokumentu honetan bistara ematen duten zenbaki horietan dagoela islatuta.

Beraiek ez daude hemen, dio Ibañez andreak, dirua eperako gordailuetan egon dadin; zorpetzeari buruzko datua ez da inbertsio alorreko politika ausart bati berezkoa zaiona, herritarrek dirua arrazoiz erabiltzea exijitzen dutelako, eta Udalbatzaren eskuetan uzten dute beraien ongizatea hobetzeko ardura; hortaz, Udalak grina erakutsi behar du bere asmoetan.

Jarraitzen du esaten ez dutela ahazten ezta 2016ko aurrekontua bere Taldearen zuzenketekin hobetu denik ere; ezta gobernu-taldeak erakutsitako harmena ere, eskertzekoa dena.

Diruarekin egin behar dena —dio Ibañez andreak— gordetzea bada, beraiek ez lukete gauza zentzugabetzat hartuko dirua kontu baten eduki beharrean herritarrei itzultzea. Hartara, zergak jaitsi ahal daitezke izoztu beharrean, daborduko 2015ekoaren tasetan planteatu zutena eta berriro planteatuko dutena, Eibar ibilgailuen zergan hiririk garestienetakoa delako, eta OHZren

Hace dos meses, continúa en su intervención, que el Equipo de Gobierno salía en prensa auto felicitándose por un año de mandato, pero que hoy es el día que todavía no les han presentado un programa de gobierno, y la improvisación se traduce en los números que hoy saltan a la vista en este documento.

No están aquí, añade, para que el dinero esté en imposiciones a plazo y el dato del endeudamiento es impropio de una política audaz en materia de inversión, pues los ciudadanos exigen que el dinero se utilice racionalmente y dejan en manos de la Corporación el mejorar su bienestar, por lo que el Ayuntamiento tiene que ser ambicioso en sus proyectos.

Prosigue diciendo que tampoco olvidan que el presupuesto del 2016 se ha mejorado con las enmiendas de su Grupo, así como la receptividad manifestada por el equipo de gobierno, que es de agradecer.

Si lo que se va a hacer con el dinero, continúa, es guardarlo, no verían descabellado que en vez de tenerlo en una cuenta se les devuelva a los ciudadanos; y así se podrían bajar los impuestos, en vez de congelarlos, algo que ya plantearon en el las tasas del 2015 y que lo volverán a plantear, pues Eibar es de las ciudades más caras en el impuesto de vehículos, y se podría suprimir el recargo del IBI.

errekargua kendu ahal izango litzatekeelako.

Proposamen horiek onartzen ez badira, gaineratzen du Ibañez andreak, gobernu-taldeari ausardia eskatuko lioke inbertsio-lan irmo bat egiteko eta bitartekoak eraginkortasunez erabiltzeko; eta, badaezpada ere, ideiarik ez badute, berak ideia batzuk emango dituela: Estaziñoaren aldamenean autobus geltokia jartzea, Txonta, Arragueta, Matxaria, hilerria lekuz aldatzea edo polo teknologikoa garatzea.

Si no se aceptan estas propuestas, añade, pediría al equipo del gobierno valentía para una decidida labor inversora y la utilización eficaz de los recursos; y por si no se tienen ideas, daría algunas de ellas como la estación de autobuses al lado de Estaziño, Txonta, Aragüeta, Matxaria, traslado del cementerio, o desarrollo del polo tecnológico.

Laburtuz —dio Ibañez andreak amaitzeko— Gipuzkoako langabeziaren hiriburuan, inguruko herrietan baino pertsonako errenta txikiagoa duen herri honetan, inbertsio-gaitasun ikaragarria eduki aurren, ez dutela zergarik jaitsi nahi; inbertsio-gaitasun hori aprobetxatu beharrean geldikinak sortzen eta zorra murrizten dabiltza. Horregatik guztiagatik, bere Taldea abstenitu egingo da eta Udal Taldeari 180 graduko biraketa egiteko gonbitea luzatu dio.

En resumen, concluye, resulta que en la capital del paro de Gipuzkoa, que tiene una renta per cápita inferior a la del entorno, no se desea bajar los impuestos, pese a tener una capacidad inversora abrumadora, y en lugar de aprovecharla se dedica a generar remanente, y a reducir deuda; por todo lo cual su Grupo se va a abstener, e invita al Equipo Municipal a dar un giro de 180 grados.

Errasti jaunak hitza hartu du hauxe esateko: bere Taldeak ez duela bere burua kontu hauek identifikatzen eta abstenitu egingo direla.

Interviene el señor Errasti para decir que su Grupo no se identifica con estas cuentas y que se abstendrán.

Aguirre andreak dio berak ez dituela kontuak menperatzen eta ezin dituela aztertu behar den bezala; hala ere,

La señora Aguirre manifiesta que no domina las cuentas y que no puede analizarlas como se debe, pero que en

orokorrean, ados dagoela Ibañez andreak esandakoarekin.

general está de acuerdo con lo dicho por la señora Ibañez.

Ondoren Alkate jaunak hartu du hitza. Hasteko esaten du diskurtsoetan kontraesanak kausitu dituela, esan baita ez dela inbertitzen, 2014an eta 2015ean, 2013koekin konparatuz, inbertsioek gora egin zutenean, eta Hiri honek biztanleko inbertsioetan duen ratioa lurraldearen aurreneko lekuan dagoenean.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien comienza diciendo que detecta contradicciones en los discursos, ya que se dice que no se invierte, cuando en el 2014 y 2015 crecieron las inversiones respecto al 2013 y cuando la ratio por habitante en inversiones de esta Ciudad está a la cabeza de la provincia.

Gaineratzen du Alkateak inbertitu egiten dela beste erakunde batzuetatik baliabideak lortzeko dagoen kudeaketa-gaitasunari esker, baliabide propioekin zaila izango litzatekeelako hori egitea, gastuan dauden lege-mugapenengatik.

Se invierte además, añade, gracias a la capacidad de gestión que obtiene recursos de otras instituciones, pues con los medios propios sería difícil, por las limitaciones legales en cuanto al gasto.

Geroxeago dio Alkateak hemen aurpegiratu egiten dela krisi sasoian diru-kopuru handiak aurrezteko gaitasun hori, Bilbon horregatik paparra ateratzen denean, Bilbok zero zor duelako, eta hori albiste ontzat hartzen da eta hemen kritikatu egiten da zorpetze-maila jaitsi izatea. Hori, berez, ez da ez ona, ez txarra, lortu beharreko helburu bat baizik, betiere, beste helburu batzuk betetzen baldin badoaz.

Dice más adelante que el tener capacidad de ahorrar cantidades importantes en época de crisis se echa en cara aquí, cuando en Bilbao se saca pecho de ello, pues Bilbao tiene cero de endeudamiento, lo que se toma como buena noticia, y aquí se critica el que se baje el endeudamiento, lo cual en sí no es ni bueno ni malo; sino un objetivo a conseguir siempre y cuando se vayan cumpliendo otros objetivos.

Ulertzen du, dio Alkateak, Partidu Nazionalistak esatea Partidu Sozialistak oso txarto gestionatzen duela, hori diskurtso politikoaren barruko zerbait delako; ulertzen du baita Partidu Nazionalistak hauteskunde-kanpainan

Entiende, prosigue, que el Partido Nacionalista diga que el Partido Socialista gestiona muy mal, ya que entra dentro del discurso político, y entiende que el Partido Nacionalista quiera poner sobre la mesa las ideas que expuso en campaña

azaldu zituen asmoak mahai gainean jarri nahi izatea, baina berak ukatu egiten diela Udal honetan ez dela inbertitzen esan duten hori, izan ere inbertsioak jaitsi badira ere, gehiago inbertitu ahal izateko kanpoko baliabide bermaturik ez dagoelako, azken urte hauetan asko inbertitu dela, horixe da egia.

electoral; pero les rechaza la máxima de que no se invierte en este Ayuntamiento, ya que aunque hayan bajado las inversiones porque no se dispone de recursos exteriores garantizados para poder invertir más; es lo cierto que en los últimos años se ha invertido mucho.

Alkateak dio 6. Kapituluak ez duela exekuzio-maila on bat, baina gaurko egunez exekuzio-maila % 80tik gora dagoela, eta legeak zifrak abenduaren 31rako ezarri arren, horrek ez duela esan nahi gauzak egingo ez direnik. Horretarako daude kreditu-txertaketak eta amaitzen ari diren obra-exekuzioak.

Dice más adelante que en efecto el Capítulo 6 no tiene un buen grado de ejecución, pero que lo cierto es que a fecha de hoy el grado de ejecución está por encima del 80%, y que aunque la legalidad imponga las cifras al 31 de diciembre, ello no quiere decir que las cosas no acaben ejecutándose, y que para ello están las incorporaciones de créditos y las ejecuciones de obras que se están acabando.

Alkateak dio bera ez dagoela ados esandakoarekin, norabiderik gabe eta edozein modutan adi direla esaten egindako adierazpide horiekin; eta egia esanda, orain dela urtebete biztanle gehienek ez zuten iritzi hori.

No comparte, prosigue, las expresiones de que no tienen rumbo y de que se va a salto de mata, y la verdad es que hace un año la mayoría de la población no tenía esa percepción.

Gaineratzen du EAJ-PNVak ez duela zerga-jaitsierarik planteatu hobariak baizik, atal batzuetan jaitsierak eta beste batzuetan igoerak, baina, edozein modutan ere, egin ezin dena da zerga bakar bat hartzea, presio fiskala baizik, izan ere, presio fiskalari dagokionez Udal hau erditik behera baitago lurraldeko udalekiko.

Añade que el PNV no planteó bajada de impuestos, sino bonificaciones en los impuestos, y bajadas en algunos tramos y en otros incrementos; pero que de todas formas, lo que no se puede hacer es coger solo un impuesto; sino la presión fiscal, pues en cuanto a la presión fiscal, este Ayuntamiento está con respecto a los

ayuntamientos del territorio, de la mitad para abajo.

Amaitzeko baieztatu du Hiria nahiko ondo dagoela, oraindik gauza asko daudela hobetzeko eta horretan dabiltzala; bere gobernu-taldearentzako langabezia-tasa kezkagarria dela, beste ardura asko ere izan arren, eta Partidu Nazionalistak 2015eko likidazioaren inguruan eman duen ikuspegia, bere iritziz, ez dela benetakoa.

Finaliza afirmando que la Ciudad está razonablemente bien, que hay muchas cosas a mejorar y que se está en ello, que es una preocupación para su Equipo de Gobierno la tasa de paro, aunque tiene otras muchas preocupaciones, y que el panorama que ha presentado el Partido Nacionalista con ocasión de la liquidación del 2015, bajo su punto de vista, no es cierto.

Berriro Ibañez andreak hartu du hitza. Esaten du berak eman dituen datuak likidazioko dokumentuarenak direla, eta dokumentu horretan esaten da inbertsioen alorrean % 50ekoa dela aurrekontu-exekuzioa.

Foru Aldundiaren finantza- eta ekonomia-adierazleen arabera, Eibarren, 2011n, hamaika milioi inbertitu ziren; 2012an lau milioi; 2013an hiru milioi eta erdi eta 2014an zazpi milioi; beraz, ezin da esan inbertsioak urtero gora egin izan dutenik.

Interviene de nuevo la señora Ibañez para decir que los datos que ha dado son los del documento de la liquidación y que en ese documento se dice que la ejecución presupuestaria en el tema del inversiones es del 50%.

Según los indicadores económicos-financieros de la Diputación, añade, en Eibar en el 2011 se invirtieron once millones, en el 2012 cuatro millones, en el 2013 tres millones y medio, y en el 2014 siete millones, por lo que no se puede decir que todos los años se han ido aumentando las inversiones.

Alkate jaunak dio berak hauxe esan duela: 2014an eta 2015ean aurreko urteetan baino gehiago inbertitu zela, eta 2011n hamaika milioi inbertitu baziren, Zapatero Planagatik izan zela.

Afirma el señor Alcalde que él lo que ha dicho es que en 2014 y 2015 se invirtió más que en años anteriores, y que si en el 2011 se invirtieron once, fue Plan Zapatero.

Berriro Ibañez andreak hartu du hitza eta esan du Bilbo dela inbertitzeko dauden hiririk onenetakoa; Eibar dela axola diena, eta ez duela balio, komeni denean, beste hiri batzuetara oratzeak, denari oratu behar zaiolako.

Alkate jaunak dio Ibañez andreak ere konparazioa egin duela ibilgailuen zerga Gipuzkoako zergarik garestiena dela esan duenean, eta Eibar ez dela munduko hiririk onena izango, baina ezta munduko txarrena ere.

Mendicute jaunak hartu du hitza Ibañez esandakoa argitzeko: Bilbo, pertsonako errenta Eibarkoa baino zazpi mila euro gehiago dituen hiria, *Financial Times* egunkariak, inbertsioetarako, Europan laugarren hiritzat aitortzen duela esateko.

Gaineratzen du beste behar batzuk ez daudenean zorpetzea jaistea izan daitekeela helburua, baina, bere Taldearen iritziz, une honetan Eibar ez dago Udalaren helburu nagusienetako bat zorpetze-maila jaistea izateko egoeran; eta inbertsioei dagokienez, Ibañez andreak kritikatzen zuena hauxe zen: 2015eko inbertsioen aurrekontu-exekuzioa ez dela iritsi % 50era; beraz, gai horretan suspentsoa.

Interviene de nuevo la señora Ibañez para decir que Bilbao es una de las mejores ciudades para poder invertir, que lo que importa es Eibar, y que no vale agarrarse a otras ciudades para lo que conviene, pues hay que agarrarse a todo.

Afirma el señor Alcalde que también la señora Ibañez ha comparado, cuando ha dicho que el impuesto de vehículos es el más alto de Gipuzkoa, y que Eibar no será la ciudad mejor del mundo, pero tampoco la peor del mundo.

Pide la palabra el señor Mendicute para aclarar lo dicho por la señora Ibañez, en el sentido de que Bilbao, cuya renta per cápita es de siete mil euros, superior a la de Eibar, es reconocida por el *Financial Times* como la cuarta ciudad europea para inversiones.

Añade que cuando no hay otro tipo de necesidades se puede plantear que el objetivo sea bajar el endeudamiento, pero que su Grupo considera que en este momento Eibar no está en la situación de que bajar el endeudamiento sea uno de los objetivos prioritarios del Ayuntamiento, y que en cuanto a las inversiones lo que criticaba la señora Ibañez es que la ejecución presupuestaria de las inversiones en el año 2015 no ha llegado 50% , por lo que un suspenso en esta materia.

Alkate jaunak baieztatzen du, lehen esan duen moduan, abenduaren 31n aurrekontuaren exekuzioa % 50etik beherakoa zela; gaur egun baino txartoago, gaur % 80tik gorakoa baita, eta hori da garrantzizkoa.

Inbertsioei dagokienez Alkateak esaten du berak ez diola ezer kendu nahi Bilbori, eta aitortzen du Bilbok ederto jakin izan duela berregituratzen, baina esan da laugarren hiria dela inbertsioak erakartzen, eta hemen inbertsio publikoez ari direla berbetan. Alkateak esaten du bilbotarrei galdetu beharko zaiela zein den beren Udaleko inbertsioei buruz duten iritzia, batzuei ondo inbertitzen dela irudituko baitzaie, eta beste batzuei, txarto; eta zero zorpetzea izan arren, hark ere bere premiak izango dituela.

Amaitzeko esan du berak esan duen gauza bakarra hauxe izan dela: hemen, kudeatzeagatik, zorpetze-maila murrizten bada, kritikatu egiten dela, eta Bilbon dominak jartzen dituztela.

Azkenik, irizpena bozketara eramanda, onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga,

Afirma el señor Alcalde que ya ha dicho que al 31 de diciembre se estaba por debajo del 50% de ejecución; peor también que a fecha de hoy se está por encima del 80%, que es lo importante.

En cuanto a las inversiones, añade, no quiere restar nada a Bilbao, que reconoce es una ciudad que ha sabido reconvertirse perfectamente, pero que se ha dicho que es la cuarta ciudad en captación de inversiones, y aquí se está hablando de inversiones públicas, y que habrá que preguntar a los bilbaínos qué opinan de las inversiones de su ayuntamiento, pues a algunos les parecerá que invierte bien, y a otros mal, y que aunque tenga cero endeudamiento, también tendrá sus necesidades.

Finaliza afirmando que él lo único que ha dicho es que si aquí por una gestión se reduce el endeudamiento, se critica, y que en Bilbao se ponen medallas.

Finalmente, sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga,

Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE),

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

<u>2.- Udal Inbentarioa onartzeko proposamena (data: 2015 abenduak 31).</u>

Honako diktamen hau irakurri da:

“Idazkari Nagusiak, 2015eko abenduaren 31ko data duen Udal Ondasunen Inbentarioa aurkeztu du, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 34. artikuluak dioena betez.

Elkar iritziak eman ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak, proposamena bozketara eraman du eta emaitza hau izan da: aldeko botoak 4 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola) eta 5 abstentzio (Gorka Errasti, Igone

Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE),

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

<u>2.- Propuesta de aprobación del Inventario Municipal a 31-12-2015.</u>

Se da lectura al siguiente dictamen:

“La Secretaria General presenta el Inventario de Bienes a fecha 31 de diciembre de 2015, en aplicación del art. 34 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Tras un cambio de impresiones, la Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor de Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabakaga y Jon Iraola y 5 abstenciones de Gorka

Lamarain, Elena Ibáñez, Jaime López de Guereñu eta Mª Jesús Aguirre). Horren ondorioz, Udalbatzari, 2015eko abenduaren 31ko Udal Ondasunen Inbentarioa onartzea proposatzen dio.

Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Jaime López de Guereñu y Mª Jesús Aguirre se propone, propone al Pleno Municipal la aprobación del Inventario Municipal de Bienes a 31-12-2015.

**2014KO INBENTARIOAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN INVENTARIO 2014**

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK/INMUEBLES | 110.988.610,59 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 55.812,23 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 134.448,65 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 1.129.887,27 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | 698.987,67 |
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 570,96 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 4.866.596,21 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 4.447.617,78 |
| **GUZTIRA/TOTAL** | **122.322.531,36** |

**2015EKO ALTAK**

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK / INMUEBLES | 1.097.552,19 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 0,00 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 0,00 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 0,00 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | |

| | |
|---|---|
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 0,00 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 87.391,94 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 0,00 |
| **ALTAK GUZTIRA / TOTAL ALTAS** | **1.184.944,13** |

**2015EKO BAJAK**

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK / INMUEBLES: | 3.670.967,10 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES: | 0,00 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 0,00 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 0,00 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | 0,00 |
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 0,00 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 29.954,59 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 0,00 |
| **BAJAK GUZTIRA / TOTAL BAJAS** | **3.700.921,69** |

**VALORACIÓN INVENTARIO 2015 / 2015EKO INBENTARIOAREN BALORAZIOA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO | HIGIEZINAK/INMUEBLES | 108.415.195,68 |
| 2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO | ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 55.812,23 |

| | | |
|---|---|---|
| 3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO | IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 134.448,65 |
| 4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO | BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 1.129.887,27 |
| 5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO | IBILGAILUAK / VEHÍCULOS | 698.987,67 |
| 6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO | ABEREA/SEMOVIENTE | 570,96 |
| 7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO | ALTZARIAK/MUEBLES | 4.924.033,56 |
| 8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO | ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 4.447.617,78 |
| | **GUZTIRA/TOTAL** | **119.806.553,80** |

**ALTAK/ALTAS**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.01** | | **<u>ERAIKUNTZAK/CONSTRUCCIONES</u>** | |
| MAT | 10800001 | HOBEKUNTZAK EGITEA UDAL LANTALDEAK TORREKUAN DUEN BILTEGIKO ERAIKINEAN / MEJORAS EDIFICIO ALMACEN BRIGADA TORREKUA | 117.850,33 |
| MAT | 15300000 | ASTELENA FRONTOIKO IGOGAILUA / ASCENSOR FRONTON ASTELENA | 194.032,44 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **311.882,77** |
| **1.0** | | **<u>PLAZAS</u>** | |
| MAT | 108400000 | HOBEKUNTZAK EGITEA TXOMOKO PLAZAN / MEJORAS EN PLAZA TXOMO | 785.669,42 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **785.669,42** |
| **7.01** | | **<u>HIRI ALTZARIAK / MOBILIARIO</u>** | |
| | | ALTEN LABURPENA / RESUMEN ALTAS | 87.391,94 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **87.391,94** |
| | | **2015EKO ALTAK GUZTIRA / TOTAL ALTAS** | **1.184.944,13** |

**BAJAK/BAJAS**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **<u>1.02</u>** | | **<u>LURSAILAK/TERRENOS</u>** | |
| MAT | 23-00000 | LURSAILAK ERREBAL-MUZATEGIN (ERREBALEKO AZOKA ZAHARRA) / TERRENOS ERREBAL-MUZATEGI (ANTIGUO MERCADO ERREBAL) | 3.670.967,10 |

| | |
|---|---|
| **GUZTIRA/TOTAL** | **3.670.967,10** |

**<u>ALTZARIAK / MOBILIARIO</u>**
BAJAK, LAPURPENA / RESUMEN BAJAS

| | |
|---|---|
| **GUZTIRA / TOTAL** | **29.954,59** |
| **2015EKO BAJAK GUZTIRA / TOTAL BAJAS** | **3.700.921,69** |

Aurreko diktamena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, arratsaldeko zazpietan, Alkate jaunak bilerari amaiera ematen dio, eta guzti horretaz, nik, Idazkari Orokorra, fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.